

## **1: KONTZEPTUA:**

Psikologoek iritzi ezberdinak dituzte inteligentzia definitzeko garaian. Hona hemen definizio batzuk:

- Pentsamendu abstraktua eta arrazonamendua.
- Ikastea eta ezagutza jasotzea. Definizio honen arabera, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta inteligentteagoa izango da indibidua.
- Gaitasun soziala eta arazoen ebazpena burutzeko gaitasuna.

## **2: THURSTONE: FAKTORE ANITZEN IKUSPUNTUA:**

Thurstone-k faktore anitzen ikuspuntua aztertu zuen eta esan zuen inteligentzia 7 gaitasun mentalek osatzen zutela:

- Gaitasun numerikoa:** Abiadura eta zehaztasuna kalkulu mentalean: Hau izan da urte askotan inteligenttearen definizioa. Horregatik, urtetan izan da inteligentea matematikan ona zena.
- Hitzen bidez pentsatzeko erraztasuna.** Bertsolariek gaitasun hau oso garatua dute.
- Ideiak ulertzeko trebetasuna.**
- Oroimena:** Zenbat eta gehiago oroitu orduan eta inteligentteagoa.
- Arrazonamendua.**
- Harreman berezien pertzepzioa.**
- Azkartasun pertzeptuala.**

## **3: INTELENTZIAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK:**

-**Abiadura kognitiboa:**

-**Motibazioa:** Inteligentzia testen emaitzetan eragina du.

-**Herentzia eta ingurunea: eredu zibernetikoa:** Eredu honen arabera, egitura bat eta programazio bat dugu:

- Egitura herentziaren bidez jasotakoa litzateke, aldatzea zaila dena eta pisu handiena duena.
- Programazioa berriz, ingurunearekin harremana duen zatia litzateke, aldatzea errazagoa dena.

-**Kultura:** Kultura batzuetan elementu batzuk preziatzen dira eta bestetan beste batzuk. Adib: AEB-tan inteligentteagoa da gauzak sailkatzeko erraztasuna duena eta Afrikan berriz, funtzionaltasuna lotzen dute inteligentziarekin, objektu baten funtzionalitatea bilatzeko gaitasuna zenbat eta handiagoa izan orduan eta inteligentteagoa izanik.

## **4: INTELENTZIAKO TEST-EN JATORRIA:**

-Binet izan zen inteligentzia test bat burutu zuen lehena. Test hori erabili zuen ikasgela arruntetan arazoak zituzten umeak identifikatzeko asmoz. Inteligentzia test hori puntuazio bidez burutzen zen eta pertsona baten gaitasun mentala neurtzeko bidea zen, eta baita gaitasun mental hori beste pertsonen gaitasun mentalarekin konparatzeko modua ere.

-Binetek “**adin mentala**” kontzeptua eraiki zuen. Adin mentala: Normalki adin kronologiko bati dagokion emaitza jakin batzuen maila. Adibidez, 10 urteko haur batek inteligentzia testean ateratako puntuazioa 8 urteko haur batena baldin bada, esaten da 8 urteko adin mentala duela.

-Terman-ek Stanford-Binetek egindako testa berrikusi eta aztertu zuen eta tarte zabaldu zuen. Testeko arau batzuk ere aldatu zituen eta kontzeptu berri bat eraiki zuen: “**koefiziente intelektual (CI)**”:

Adimen mentala	Adimen mentala: Benetako inteligentzia, testean ateratako emaitza.
----- x 100	
Adimen kronologikoa	Adimen kronologikoa: Duen adinerako esperotako den inteligentzia.

□ Haur baten koefiziente intelektual normala 100 litzateke (85,115).

## **5: INTELIGENTZIA: GAITASUN OROKORRA ALA GAITASUN ESPEZIFIKOEN MULTZOA DA?**

-Analisi faktoriala: Gaitasun mental espezifikoen azpian faktore orokorra dagoen ala ez deskubritzeko prozesua.

-Inteligentzia orokorra (“G”): Spearmanen arabera, inteligentzia orokorra oinarrizko inteligentzia da, zenbait gaitasun mentalen azpian dagoena eta inteligentziako testen froga bakoitzean neurtzen dena.

-Ikertzaileek gaitasun mental batean baino gehiagotan emaitza onak ateratzeko joera dagoela hauteman dute.

## **6: GAUR EGUNGO TEORIAK:**

### **6.1: INTELIGENTZIA ANITZAK (Gardner):**

-Inteligentzia orokorraren (“G”) aurkakoa planteatu zuen, inteligentzia gaitasun multzoa dela esanez. Horretarako, “**Jakintasanaren sindromea**” kontzeptua erabili zuen. Gardner-en arabera, gaitasun mental batean ona zenak ez zuen beste batean ere ona izan behar, gaitasun mentalak elkarren artean independenteak baitira.

-8 inteligentzia mota deskribatu zituen:

-Inteligentzia linguistikoa: Idazleek, bertsolariek, ... dutena.

- Inteligentzia matematikoa: Arazo logikoak ebazteko gaitasuna.
- Inteligentzia musikala: Abeslariak eta beste musikariek dutena.
- Inteligentzia espaziala: Eredu mentala 3 dimentsiotan.
- Gorputz inteligentzia: Gorputza ibiltzeko gaitasuna.
- Inteligentzia intrapertsonala: Norbera ezagutzeaz gain besteak ere ezagutzeko gaitasuna. Adib: Terapeutek dutena.
- Inteligentzia interpertsonala: Beste pertsonak ezagutzeko eta besteekin lan egiteko gaitasuna. Adib: Saltzaileak, irakasleak, ... dutena.
- Naturazko inteligentzia (naturalistikoa): Natura behatu eta ikasteko gaitasuna. Adib: Biologoek dutena.

## 6.2: INTELIGENTZIA ARRAKASTASUN BATEN ASPEKTUAK (Sternberg):

-3 inteligentzia mota bereizi zituen:

- Inteligentzia analitikoa:** Ikasketa arazoak ebazteko gaitasuna.
- Inteligentzia kreatiboa:** Egoera berrietan erreakzio egokitzatuak burutzeko gaitasuna eta ideia berriak ekoizteko gaitasuna.
- Inteligentzia praktikoa:** Eguneroko zereginei aurre egiteko gaitasuna.

## 6.3: INTELIGENTZIA EMOZIONALA:

-Inteligentzia soziala da, harremanetarako gaitasuna alegia. Gaitasun hau beharrezkoa da egoera sozialak ulertzeko eta norbere buruarekin ondo konpontzeko. Inteligentzia emozionala bestalde, emozioak pertzibitzeko, adierazteko, lertzeko eta erregulatzeko gaitasun bezala ere defini dezakegu. Ez du gaitasun akademikoekin zerikusirik.

-Inteligentzia emozionala neurtzeko testak badaude, baina, bereziak dira. Testak beharrez, tailerrak erabiltzen dira inteligentzia emozionala lantzeko. Oso modan dago inteligentzia mota hau.

## 7: INTELIGENTZIA ETA SORMENA:

-Korrelazio txikia dago inteligentzia eta sormenaren artean. Batzuetan erlazonaturik daude eta bestetan ez. Izan ere, inteligentziaren gehikuntzak ez du sormenean eraginik izan behar.

-Sormena ideia berriak eta baliagarriak ekoizteko gaitasuna da. Pentsatu izan da herentzia bidez jasotako gaitasun bat zela, baina, gaur egun esaten da 5 faktorek eragiten dutela sormenean:

- Konpetentzia:** Oinarrizko ezagutza ondo garatua egotea.
- Irudimenezko pentsamendurako gaitasuna:** Gauzak ikusteko gaitasuna, ereduak identifikatzeko gaitasuna, asoziazioak egiteko gaitasuna, ...

-**Nortasun ausarta:** Anbiguotasuna eta arriskua toleratzeko gai denak izango du nortasun ausarta, oztopoak gainditu eta esperientzia berriak bilatzen dituenak.

-**Motibazio intrintsekoa:** Intesera, plazerra, gozamina sentitzea, kanpoko presiorik gabe, kanpoko presioak sormena mugatzen baitu.

-**Sormenezko ingurunea:** Inguruneak sormenezko ideiak bultzatzen ditu. Adib: Freud-ek beste pertsonekin bilerak egiten zituen, haiekin hitz eginez bere ezagutza hornitzen zuelako.

## **8: INTELIGENTZIAREN EBALUAZIOA:**

-Inteligentzia neurtzeko testak erabiltzen dira batez ere. Test mota ezberdinak daude. Test-en sailkapena:

-Gaitasun probak: Ikasteko gaitasuna iragartzen duten testak dira.

-Etekin probak: Ikasitakoa neurtzen duten testak dira.

-**WAIS (Weschler adult intelligence scale = Wechler-en inteligentzia neurtzeko eskala):** Inteligentzia neurtzeko gehien erabiltzen den testa da. Test honek 2 atal ditu: ahozkoa eta ez ahozkoa (burutapen proba).

### **-Ahozko eskala:**

-Informaziozko azpi-testa.

-Ulermen orokorraren azpi-testa.

-Aritmetikako azpi-testa.

-Antzekotasunaren azpi-testa.

-Digituen atxikipenaren azpi-testa.

-Berbategi azpi-testa.

### **-Ez-ahozko eskala (ejekuzioa):**

-Irudiak osatzearen azpi-testa.

-Kuboen diseinuen azpi-testa.

-Irudien antolamenduen azpi-testa.

-Objektuen mihizketaren azpi-testa.

-Digituen sinboloen azpi-testa.

Test honetan ateratako emaitzen interpretazioa:

-130 edo gehiago: Superdotatua.

-120-129: Bikaina.

- 110119: Inteligentea.
- 90-109: Arrunta.
- 80-89: Inteligentzia gutxikoa.
- 70-79: Mugakidea (borderline).
- 50-69: Azaleko adimeneko hutsunea.
- 49-30: Erdiko adimeneko hutsunea.
- 29 edo gutxiago: Sakoneko adimeneko hutsunea.

### 8.1: TEST BAT ERAIKITZEKO PRINTZPIOAK:

- Estandarizatua egotea:** Pertsona baten emaitzak besteenekin konparatu ahal izateko. Esanguratsua izatea.
- Fidagarria izatea:** Emaitzak koherenteak izatea.
- Baliokoa izatea:** Neurtu behar duena neurtu ahal izatea.
- Eduki baliagarritasuna izatea:** Interesatzen zaigun jarreraren eredutzat balio izatea.
- Aurreikuste baliagarritasuna izatea:** Testean emaitza onak ateratzeak ez du esan nahi eguneroko bizitzari aurre egiteko gaitasuna duenik.

### 9: INTELIGENTZIAREN DINAMIKA:

- Jaioberriek estimulu berriei atentzio gehiago jartzen die (adierazlea).
- 3 urte baino gutxiagoko haurretan portaera behatzeak eta intelgentzia testak egiteak eraginkortasun txikia du.
- Inteligentziako testetan errendimendua 4 urtetik aurrera ikusten da, nerabezaro eta helduarora arte.
- 7 urtetik aurrera, intelgentzia testen emaitzak egonkortu egiten dira.
- Egonkortasun hori areagotu egiten da denboraren poderioz, hau da, urteak pasata.